

ORDAINDUTAKO LIZENTZIAK

LIZENTZIA	ART	IRAUPENA	OHARRAK
Istripu edo gaixotasuna.	35	Medikuak alta eman arte.	Egiaztageria aurkeztu behar da. Udako oporrak berreskuratzen dira. Soldata: %100.
Norberaren ezkontza	37-2A	20 eguneko baimena + ordaindugabeko 15 egun (langileak nahi badu).	Ezkontzaren aurretik edo ondoren 20 egun.
Bikotearekin elkarbizitza egonkor bati ekitea.	45 D1	20 eguneko baimena + ordaindugabeko 15 egun (langileak nahi badu).	Elkarketa zibilen Udal Erregistroan, erregistraturik dagoenaren egiaztageria aurkeztu behar da. Erregistrorik ez balego, Udalak eginiko elkarbizitzari buruzko egiaztageria eta elkarbizitzaren izaeraz zinpeko aitormena aurkeztu behar da.
Senide baten ezkontza.	37-2A	Egun bateko lizentzia (gurasoak, senideak edo seme-alabak).	Egun hori ezkontzakoa izanen da, nahitaez.
Senideen gaixotasun larria.	37-2B	Bikotekidea / seme-alaba edo bere ardurapean dagoen norbait: 5 lanegun gehienez. Guraso / bikotekidearen guraso: 5 lanegun gehienez. Ahaidetasun 2. mailakoak: 5 lanegun gehienez.	Ospitalizazioa edo etxeke ospitalizazioa beharrezkoa da. + 2 egun langileak 300 km baino gehaiagora denean. Ospitalizazioak bere horretan jarraituz gero, denboraldi bereko bigarren lizentzia ordainduta egongo da, lehendabizikoa bukatu eta 30 egun jarraian iragan ondoren.
Senideen heriotza.	37-2B	Ezkontide edo bikotekide: 5 lanegun.	+ 2 egun langileak 300 km baino

		Seme-alaba: 5 lanegun. Guraso: 3 lanegun. Senide, aitona-amona eta biloba: 2 egun	gehiagora denean.
Medikuarengana joateko lizentzia.	37-2C	Beharrezkoa den denbora.	Egiaztagiria aurkeztu beharko da.
Seme-alabak, gurasoak edo bikotekidea medikuarengana laguntzeko baimena	37-2C	Ikasturtean 15 ordu.	Egiaztagiria aurkeztu beharko da.
Ohiko bizileku aldaketa.	37-2D	Egun 1.	
Eginbehar publiko zein pertsonaletarako	37-2E	Beharrezkoa den denbora, eginkizun horiek lan-orduetatik kanpo egin ezin badira.	Egiaztagiria aurkeztu beharko da.
Titulu ofizialetako azterketak egiteko.	39a	Lizentziak egun batekoak izanen dira azterketa bakoitzeko.	3 egun naturalekoak ere izan daitezke 150 km baino urrutiago joan behar dutenean. Egiaztagiria aurkeztu beharko da.
Ezinbesteko arrazoi batengatik zaintzarako baimena		Urtean lau egunen baliokideak izango diren orduak	Egiaztagiria aurkeztuta.

ORDAINDUGABEKO BAIMENAK

BAIMENA	ART	IRAUPENA	OHARRAK
16 urtetik beherako adin txikiko edo ordaindutako lanik egiten ez duen gorputz edo adimenaz ezgaitasuna duen norbait bere kargu zaintzeko.	37-B1	Lanaldiaren zortziren eta erdiaren bitarteko murrizketa kausak dirauen bitartean	Aldia eta ordutegia zehaztea langileari dagokio. Langileak itzuliko den eguna baino 15 egun lehenago idatziz jakinarazi beharko dio ikastolari.

15 eguneko baimena.	37-B2	Gehienez ordaindu gabeko 15 egun hartzeko aukera, txanda batean edo bitan banatuta.	15 egun lehenago eskatu behar da.
Hiruhileko baimena.	37-B3	Ordaindu gabeko hiruhileko baimena hartzeko aukera.	5 urtetik gora daramaten langileentzat 3 hilabete lehenago eskatu behar da. Zuzendaritzak eta langileen ordezkariak eskaeraren ondorio pedagogikoak eta antolakuntzakoak aztertu ondoren.
Ikasturte batean lanaldia murrizteko baimena.	37-B4	Herena eta erdiaren bitarteko murrizketa ikasturte osorako (irailaren 1etik abuztuaren 31 arte).	Gutxienez 10 urteko antzinatasuna. Eskaera idatziz maiatzaren 15a aurretik. Zuzendaritzak eta langileen ordezkariak eskaeraren ondorio pedagogikoak eta antolakuntzakoak aztertu ondoren.
Genero-indarkeriaren biktimentzat murrizketa edo berrantolakuntza	37-B5	Ikasturte osorako	
Titulu ofizialak lortzeko	39b	Lanaldia %50 arte gutxitzea	Ikastolako kudeaketa organoaren onespena beharko du.
Aldez aurretik ordaindutako baimena. Urte sabatikoa.		Lehenengo 4 urteetan jardun osoan egingo du lan, 5. urtean lan egingo ez duelarik.	Gutxienez 5 urteko antzinatasun eduki behar da. Langileak, 5 urte hauetan soldataren %84 jasoko du.